

TITA TIRITA

Titak, arratsalde arrunt batez, ospetsua izan nahi zuela adierazi zien gurasoei.

– Ospetsuak mundu guztiak maite ditu eta nik ere maitatua izan nahi dut!

DI-DA, halaxe bota zien gurasoei.

– Kontxolis! –atera zitzaion amari-. Guk maite-maite zaitugu-eta!

– Mekaxis! –minduta aitak-. Guk maite-maite zaitugu-eta!

Titak, ostera, jendeak beti gogoan izan zezan nahi zuen.

– Momentu txarretan jendea nitaz gogora dadin nahi dut eta betirako beren bihotzetan gorde nazaten.

Eta Tita aldatzen hasi zen: koloretako petoa jantzi zuen, eguzkitako betaurrekoak, kapela loreduna, galtzerdi marradunak eta zapatila erosoak.

Amari korapiloa egin zitzaion lepoan.

Aitari besoak korapilatu zitzaizkion papar gainean.

Baina ez zen hura Titak egin nahi zuen aldaketa bakarra: etxez aldatzeko asmoa agertu zien gurasoei.

– Gu beti etxe serioetan bizi izan gara! –bota zion aitak, haserre-. Txikitan ez zintugun alferrik hiriko medikurik onenaren kontsultara eramán...

– Etokizuna zeneukala iragarri zigun... -amak, eskuak ma-sailetara eramanez-. Ondo itsasten zinela-eta!

Aitona oso pozik gelditu omen zen medikuaren kontsultatik ateratzerakoan: “FIUUU!!! Titak ez du bere amonak bezala bukatuko!” esanez.

Auzokoak, oilasko izterra prestatzen ziharduela, RAUST!!!, behatza moztu omen zuen. Amona joan zitzaion laguntzera eta, bost minuturen buruan, FART! auzokoak non botatzen du zakarretara!

Titak ez zuela amonak bezala bukatuko agindu zien gura-soei.

– Baina horixe da tirta baten patua! –egin zuen hasperen aitak.

Titak, ostera, ez zion edonori lagundu nahi. Berak umeen laguna izan nahi zuen: “min gehien hartzen dutenak UMEAK DIRA, negar gehien egiten dutenak UMEAK DIRA eta tiritak gehien maite dituztenak UMEAK DIRA”.

– Baina zer diozu Tita? –haserretu zitzaion aita-. Umeak bihotz gabeak dira! Aspertzen direnean kromo batengatik aldatuko zaituzte!

– Burutik al zaude? –egin zion arrapostu amak-. Umeak oso berekoiak dira, mimoak besterik ez dituzte nahi! Eta behin mimoak jasotakoan, mila trastez betetako kaxan ahazten zaituzte!

Titak, maleta hartu, buruan txirikordak egin eta... AAAA-GUR! etxetik alde egin zuen. Farmazia utzi eta espaloian 50 metro beheiago zegoen txutxe dendako ate azpitik sartu eta mostradorean jarri zuen bere burua, txikleen aldamenean.

Gurasoak alabaren atzetik atera ziren eta txutxe dendaren erakusleihoan muturra itsatsita gelditu ziren. PLAF!

Jende asko zebilen txutxe dendan. Ume guztiek ikusi zuten Tita mostradorean. Ez hala gurasoek.

Halako batean, dendariak, txupa-txups kaxa batzuk irekitzen ari zela, behatza moztu zuen.

Titak bi aldiz pentsatu zuen: ez zen umea eta berak umeei lagundu nahi zien. Baina laguntza behar zuen eta bere patua laguntza eskaintzea zen.

Tita, PIUNNN! txikle artetik mostradorera irristatu zen. Dendariak aurpegiera arraroz begiratu zion baina behatzean itsatsi zuen. Gurasoak, pozik erakusleihotik begira, alabak ondo ikasi zuelako eurek irakatsitakoa.

Bost minutu igaro zirenean, ordea, dendariak behatza ahora eramanean, tirta hortzekin harrapatu eta ttua bezala lurrera jaurti zuen.

– EZ!!! –garrasi egin zuen amak-. Gure alaba ez!

– TXERRIA!!! –bota zuen aitak-. Nor dela uste du horrek?

Tita, norbaitek ostikoz jo eta apalategi baten azpialdean gelditu zen, ximur-ximur, konorte gabe.

Aitonarekin sartu zen umetxo batek, kromoei begira zebilela, lurrean zetzan tirta ikusi zuen. Begira-begira gelditu zitzaion. UMMM! Ideia bikain bat izan zuen.

– Aitona, bildumaz aldatzea erabaki dut –esan zuen umeak emozioz beterik-. Erreskatatzaile ausartien bilduma egiten hasiko naiz eta tirta hauxe izango da nire lehen kromoa. Maite ditut tiritak!

– Maite dituzu zu bezalako heroiak, Xalba! –esan zion aitona burua igurtziz.

Eta aitona album berria erosi zion ilobari, kromo bereziak betirako bere bihotzean gorde zitzaion.

Ana Urkiza